

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

A eredua

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu.
- **1h 50 min.** dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Proben ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
IRAKURMEN PROBA Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez.	50 min.	20	10
IDAZMEN PROBA Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.	60 min.	30	15

- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.
- **Ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan** egin.
- **Irakur itzazu** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena

1. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

SUAREN INDARRA

Sua magikoa da, baina suaren indarrak urtero mendi asko erretzen ditu. Aurten, Gironan 14.000 hektarea kiskali dira. Azkenaldiko suterik handiena izan da. Gaizki itzalitako zigarro batek eragin zuen, uztailaren 22an, eta kalteak izugarriak izan dira: lau lagun hil ziren, eta 22 zauritu.

Euskal Herrian ere urtero gertatzen dira mendiko suteak. 2010eko datuen arabera, ia 1.500 hektarea kiskali ziren Hegoaldean. Ez da inoiz izan Gironakoa bezalakorik, baina sute handiak gertatu izan dira. Uxuen eta Galarren gertatu dira azkenekoak, orain dela gutxi.

Euskal Herriko suterik handienetarikoa 2009ko udan gertatu zen, Izagaondoko haranean, Nafarroan. Udan izaten dira suterik handienak, eta Izagaondokoa, hain zuzen ere, Txulapainen beste sute bat gertatzen zen bitartean piztu zen. Tximista batek piztu zuen, eta, hego-haizearen eraginez, azkar zabaldu zen haranean barrena.

Zenbait mendi behin baino gehiagotan erretzen dira. Iruñea ondoan dagoen Ezkaba mendia, esaterako, 1986an, 2000n eta 2005ean erre zen. Lehenengo bi suteak militarrek eragin zituzten, Ezkabaren inguruan daukaten kuartelean egindako tiro-ariketengatik. 2000. urteko sutean 100 hektarea erre ziren. Hego-haizea zebilen, eta zaila egin zitzaizen suhiltzaileei sua itzaltzea.

2005eko abuztuan gertatutakoa ere zaila izan zen kontrolatzen. Haizearen eraginez, Ezkabaren inguruko soroetara zabaldu zen sua. Gironan gertatu zen bezala, gaizki itzalitako zigarro batek piztu zuen sua. 145 hektarea kiskali zituen.

Neguan ere ohikoak dira suteak. Artzainek, adibidez, larreak erretzen dituzte sasoi horretan. Gehienetan ez da ezer gertatzen, baina batzuetan bai. Horixe gertatu zen 2000ko otsailaren 10ean Ezterenzubin, Nafarroa Beherean. Philippe Sukia artzainak eta bere lagun batek Errozate mendiko larreei su eman zieten ardientzako belarra lortzeko, eta, zoritxarrez, zortzi mendizale harrapatu zituen suak. Bost hil ziren, bi larri zauritu, eta batek ihes egitea lortu zuen. Artzainak eta bere lagunak kartzelan bukatu zuten.

Sukia artzainak ardiak Errozate aldeko bordan zituen. Epaketan esan zuenez, ondoko mendietan suak ikusi zituzten, ez zebilen haizerik, eta sua pizteko giro egokia zela iruditu zitzaizen. Montezin lagunarekin joan zen larreei su ematera. Montezinek mendizale batzuk ikusi zituen sua egiten ari zela, eta keinuka handik alde egiteko esan zien, baina mendizaleek oinez jarraitu zuten. Bat-batean, haizea harrotu, eta 130 hektarea erre ziren.

2001eko abuztuan, Arabako Gaubeako haranean, 26 ordu behar izan zituzten Villamaderneko sutea itzaltzeko. Uzta biltzeko makina batek egindako txinparten ondorioz hasi zen sua. Herritarrak, suhiltzaileak, bi helikoptero, ura garraiatzeko autoak eta kamioiak... guztira 150 lagun aritu ziren sua itzali nahian, baina ezin, ez zen nahikoa. Larri zebiltzala ikusi, eta laguntza gehiago eskatu zuten. Bost orduren buruan iritsi zen ur-hegazkina Madrildik. "Berandu", Gaubeako alkatearen iritziz. 203 hektarea kiskali zituen suak.

AMATRIA, Lohizune
Berria, 2012-08-03. Egokitua

1. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Nola sortu zen Gironako sutea?

- a) Lagun batzuek nahita piztu zuten zigarro batekin.
- b) Zigarro baten erruz piztu zen.
- c) Berez sortu zen.

2. Euskal Herrian izan al da inoiz Gironakoa bezalako suterik?

- a) Bai, Uxuen, esaterako.
- b) Ez.
- c) Lehen, ia urtero.

3. Zer gertatu zen Nafarroan, 2009ko udan?

- a) Sua, lehenengo, Txulapainen hasi zen, eta gero Izagaondoan.
- b) Izagaondoan eta Txulapainen tximistak jo, eta sua hasi zen.
- c) Tximistak sua eragin zuen Txulapainen, eta handik Izagaondora zabaldu zen.

4. Militarrek ba al dute zerikusirik Ezkaba mendiko suteekin?

- a) Bai, hiru bider eman diote su.
- b) Ez, suteak hego-haizearen erruz zabaldu ziren.
- c) Bai, tiro-ariketak inguru horretan egiten dituztelako.

5. Ba al dago antzik aurten Gironan eta 2005ean Ezkaba mendian gertatutako suteen artean?

- a) Sute biak uztailean gertatu ziren.
- b) Suteek antzeko kalteak eragin zituzten ingurumenean.
- c) Biak arrazoi berberagatik piztu ziren.

6. Zer dela-eta piztu zen Ezterenzubiko sua?

- a) Artzainen eta mendizaleen artean piztu zuten, mendia garbitzeko.
- b) Artzainaren lagunak mendizaleak sua pizten ikusi zituen.
- c) Artzainak eta bere lagunak piztu zuten, ardientzako belarra izateko.

7. Sua piztu aurretik nola zegoen Errozateko aldea?

- a) Sua egiteko giro ona zegoen eta ez zebilen inor mendian.
- b) Inguruko mendietan suak zeuden eta ez zen haizerik.
- c) Haizea zebilen, eta mendizale batzuei alde egiteko esan zieten.

8. Zergatik zegoen haserre Gaubeako alkatea?

- a) Madrileko laguntza garaiz iritsi ez zelako.
- b) Sua makina baten erruz piztu zelako.
- c) Sua itzaltzeko, 150 lagun gutxi zirelako.

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

1. HE

IRAKURMENA

■ **2. ariketa**

Elkarrizketa bat irakurriko duzu. Testuan, kazetariak egindako galderak falta dira. Hurrengo orrian dituzu galderak. **Lotu galderak eta erantzunak.**

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Galdera bat sobera dago.

IRUDIA DENA DA GAUR EGUN

Modak Parisko edo Milango kontua dela ematen du, baina gurean ere badira diseinatzaileak. Txorierrin, esaterako, Alazne Etxebarria dugu horietako bat. Gazte zamudiotarrak Bilbao Internacional Art&Fashion lehiaketa irabazi du hezurrezko osagarrien bildumari esker.

1

Lehiaketa bi urtez behin egiten da. Oso diseinatzaile onak aurkezten dira. Aurreko edizioan ere aurkeztu nintzen. Oso esperientzia polita izan zen eta aurten ere aurkeztea erabaki nuen.

2

Animalien hezurrez egindako bilduma bat aurkeztu nuen: eraztuna, lepokoa, eskumuturrekoa... Hezurren bidez zikinkeria adierazi nahi nuen, eta, aldi berean, gozotasuna eta dotoretasuna. Lana oso kontzeptuala zen eta ez nuen uste irabaziko nuenik.

3

Amak herriko dendetan eskatu zituen. Hasieran, arrain-hezurak erabili nituen, baina apurto egiten zitzaizkidan. Eta gero behi, txerri eta oilasko-hezurak erabili nituen.

4

Orain benetan esan dezaket diseinatzailea naizela. Lehen trajeak diseinatzeko eskatzen zidaten, baina ez nuen neure burua gauza ikusten. Orain bai, ordea. Eta sariak dirua ere ekarri dit, jakina.

5

Bai. Bilbon egin zen beste batean ikaskide batzuekin batera egin nuen proiektua aukeratu zuten. Gizonezko traje zuri bati geure ukitua eman behar izan genion, eta urdinez margotu, sorbaldakoak handitu, prakak moztu, eta lorezko estanpatua jarri genion.

6

Beste gauza bat izan dut beti buruan: nire etxean lan egitea, tailerrean, eta bezeroak bertan hartzea. Estilismoa ere gustatzen zait. Nire ustez, irudia dena da gaur egun, eta zaindu egin behar da.

7

Diseinua orokorrean interesatzen zait: arropa, osagarriak, aulkiak... Gustukoa dut bezeroa niregana etortzea, arazo bat azaltzea eta horri konponbidea topatzea.

8

Ia ezinezkoa da. Beti uste duzu gauza berriak asmatzen dituzula, baina gero konturatzen zara dagoeneko beste norbaitek egin duela. Hala ere, pentsatzen eta sortzen jarraitu behar duzu.

9

Tira, Bilbo bada apur bat modernoa, baina Txorierrin beti bezala janzten gara. Ezohiko janzkiak janzten ditudanean, begiratu egiten didate kalean. Baina gustatzen bazait, zergatik ez ditut jantziko?

EGUSKIZA, Gaizka
 Aikor, Txorierriko aldizkaria. Egokitua

1. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa. Lotu galderak eta erantzunak

- A. Zer ekarri dizu saria irabazteak?
- B. Zaila izango da gauza berriak asmatzea, ezta?
- C. Zer dela eta aurkeztu zinen lehiaketara?
- D. Ba al duzu atzerrira joateko asmorik?
- E. Ba al duzu zeure denda irekitzeko asmorik edo ametsik?
- F. Beste lehiaketaren batera aurkeztu al zara?
- G. Nolako lana aurkeztu zenuen lehiaketara?
- H. Lehiaketara osagarriak aurkeztu dituzu, baina batez ere moda diseinatzen duzu, ezta?
- I. Nondik atera zenituen hezurak?
- J. Estilismoaz eta modaz dakizu zuk. Euskaldunak modernoak al gara?

Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8	9
Galderak									

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

1. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

GURE HEGAZTIAK

PITXARTXAR NABARRA

A

Euskal Herrian 500 bat daudela uste da. Zoritzarrez, txori honen populazioa gutxitu egin da. Txori txikia da, 13 zentimetro neurtzen du batez beste. Arrak, gainaldea arre-beltza du. Buruan bekain luze eta zuria du, eta begi azpian marra beltzak. Isatsa arrea du, bularra eta lepoa gorriztak ditu, eta eztarriaren bi alboetan marra zuriak. Leku irekietan bizi da, ia zuhaitzik ez dagoen belardietan. Denbora asko ematen du atsedena hartzen. Udazkena heltzen denean, taldeak sortzen ditu. Landare artean egiten du habia, kopa itxurakoa. Urtean bospasei arrautza jartzen ditu. Lurzoruan harrapatzen dituen artropodoak eta zizareak jaten ditu.

PITXARTXAR BURUBELTZA

B

Bikoteak urte osoan egoten dira elkarrekin. Toki garaietan bizi da. Beti adar, zuhaitz, hesi edo makilen baten gainean ikusi ohi dugu. Ez du batere gorputz proportzionatua, buru handia eta buztan luzea ditu. Arrak lumaje deigarria du; emeak, ez hainbeste. Pitxartxar nabarraren antzeko tamaina du. Martxoa edo apirila aldera ugaltzen da. Habia lurrean egiten du, sasi eta harrien artean. Emeak bakarrik egiten du habia. Udazkenean populazioa handitu egiten da, baina egunak aurrera egin ahala, gutxitu egiten da. Batez ere intsektuak jaten ditu.

KUKU ARRUNTA

C

Haren “ku-ku” berezia guztiok ezagutzen dugu, baina ezkutatzea gustatzen zaio. Txori honen itxura ez da batere ezaguna. Kuku arrunta 32 zentimetro luze da; buztan luzea eta hego zorrotzak ditu, eta kolore gris samarreko lumajea; sabelaldean marra zuri-beltzak ditu. Kukuaren ahotsa apirilaren lehen egunetan entzuten da, eta iraila arte hemen gelditzen da. Gaueko migratzailea da, 3.000 km egin ditzake geldialdirik egin gabe. Beste espezieen habietan jartzen ditu arrautzak, eta kuku jaioberriak habian dauden beste arrautzak eta beste txori jaioberriak bertatik botatzen ditu. Habia horretako gurasoek ekarritako janaria beretzat gordetzen du. Intsektujalea da, baina batzuetan arrautzak eta txorikumeak ere jaten ditu.

euskaraz.net@Euskararen_Donostia

1. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

- | | | | |
|--|---|---|---|
| 1. Txori hau hiruren arteko handiena da. | A | B | C |
| 2. Txori-mota honetako arrak eta emeak oso ondo konpontzen dira. | A | B | C |
| 3. Lehen gehiago ziren. | A | B | C |
| 4. Udazkenean taldean ibili ohi da. | A | B | C |
| 5. Lapur-ospea du txori honek. | A | B | C |
| 6. Ez da erraza txori hau ikustea. | A | B | C |
| 7. Txori hau gutxitan ikusiko dugu zuhaitz batean. | A | B | C |
| 8. Txori honek egindako habiak ez dituzu, ez zuhaitzetan, ez landare artean ikusiko. | A | B | C |

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

1. HE

IDAZMENA

Oharrak:

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota. (Inprimakia betetzeko eskatzen bazaizu –eskaera, mezu elektronikoa–, ez egin eskutitz itxurako ezer).
- Idatzi garbi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun,
 - ideiak garbi adierazi dituzun,
 - euskara nola erabili duzun: egoki, zuzen edota aberats.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA **ONDORENGO ORRIETAN** DAUKAZU.

ARIKETAK, HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN **APARTEKO ORRIETAN**
EGIN BEHAR DITUZU.

■ 1. ariketa


Gaia kontuan hartu eta **eskaera-inprimakia** bete behar duzu.
Gutxienez 50 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Urtero bezala, udal-kiroldegira joan zara yogako ikastaroan izena ematera. Alferrik, ordea; aurten plaza gutxiago daudenez, tokirik gabe geratu zara. Azaldu arazoa kiroldegiko zuzendariari, adierazi yoga egitea zein garrantzitsua den zuretzat, eta konponbideren bat eskatu.

■ 2. ariketa

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.
Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Lagun batek idatzi dizu Euskal Herritik. Zu atzerrian zaude. Lan bila joan zinen, eta orain ospitale batean egiten duzu lan. Erantzun iezaiozu lagunari. Kontatu nola bizi zaren, zein den horko egoera eta animatu horra joatera.



Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



1. HE / IRAKURMENA

- 1. ariketa: Aukera anitzeko galderak
- Irakurgaia: «SUAREN INDARRA»

1.	B	5.	C
2.	B	6.	C
3.	A	7.	B
4.	C	8.	A

2. ariketa: Galderak eta erantzunak lotu

- Irakurgaia: «IRUDIA DENA DA GAUR EGUN»

Erantzunak	1	2	3	4	5	6	7	8	9
Galderak	C	G	I	A	F	E	H	B	J

D galdera sobera dago

- 3. ariketa: Esaldiak eta testuak lotu
- Irakurgaia: «GURE HEGAZTIAK»

Esaldiak	1	2	3	4	5	6	7	8
Testuak	C	B	A	A	C	C	A	B